



# Orriak



## ***HOT IRON MARGINALIA ADRIÀ JULIÀ***

### **2 ERAKUSKETA ARETOA / SALA DE EXPOSICIONES / EXHIBITION HALL**

Bakarkako erakusketa / Exposición individual / Solo show: *Adrià Julià*

### **AURKIBIDEA | ÍNDICE | INDEX**

Sarrera | Intro (2) • Sei izenak | Seis nombres | Six names - *Magali Arriola* - (4 - 8) • Erakusketako planoak | Plano de la exposición | Exhibition floor map (9) • Recorrido por la exposición | Ibilbidea erakusketan barna | A walk through the exhibition - *Adrià Julià* - (10 - 13) • Jarduera paraleloak | Actividades paralelas | Related activities (14) • Kredituak | Créditos | Credits (15)

---

## Sarrera

Udazken honetan bi istoriorekin gatoz. Hobe esanda, Juan Canela eta Adrià Julià datozkigu bi istoriorekin. Lehenak magiaren, erritoen eta naturaren munduan murgilduko gaitu. Bigarrenak, kutur trukeaz eta horren oinordekotzaz hitz egingo digu.

*Hot Iron Marginalia* Adrià Juliàk aurtengo maiatzean Bartzelonako Fundació Joan Miró-ren baitako Espai Tretzen egindako proiektuaren luzapena da. Proiektu hura Jordi Antasek komisariatutako *Pie afuera* sailaren parte izan zen. Kataluniako eliza erromanikoak gaitzat zituzten bere aitonen argazki bildumetatik abiatuta, Juliàk ondarearen eta kultur-oinordekotzaren gaiak jorratzen ditu, harreman ekonomikoen ikuspegitik. Horretarako, zenbait film eta instalazio erabiltzen ditu, era berean, 90. hamarkadan Katalunian futbol amerikarra barnertatzeko egin zen saiakerari erreferentzia egiten diotenak.

Bi erakusketa hauen osagarri gisa hainbat jarduera ere izango dira, erakusketok inguratzen dituzten unibertsoetan murgiltzen laguntzeko asmoz. Bi proiektu hauekin, halaber, itxiera emango diogu aurtengo erakusketa zikloari, ikonografiaz, erritoz, sinbologiaz, eta historiaren irakurketa gurutzatuz betetako udazkena utziz.

**Ane Rodríguez Armendariz**  
Tabakalerako Kultura zuzendaria

## Intro

Este otoño os contamos dos historias. O mejor dicho, nos las cuentan Juan Canela y Adrià Julià. El primero nos adentra en historias de magia, rituales y naturaleza. El segundo, nos habla del intercambio cultural y de sus herencias.

*Hot Iron Marginalia* es la continuación del proyecto que el artista Adrià Julià llevó a cabo en el Espai Tretze de la Fundació Joan Miró de Barcelona, en mayo de este año, dentro de la serie *Pie a fuera* comisariada por Jordi Antas. A partir del registro fotográfico de iglesias románicas catalanas en los álbumes de su abuelo, Julià aborda los conceptos de patrimonio y de herencia cultural desde un punto de vista de relaciones económicas a través de varias películas e instalaciones que también hacen referencia a la "importación" del fútbol americano a Cataluña en los años 90.

Ambas muestras estarán acompañadas de actividades que ayudarán a ahondar en sus universos. Con ellas cerramos el ciclo de exposiciones de este año, dejando un otoño lleno de iconografía, rituales, simbología y cruces de lecturas de historias.

**Ane Rodríguez Armendariz**  
Directora cultural de Tabakalera

## Intro

This autumn we have two stories for you. Or rather, they are told by Juan Canela and Adrià Julià. The former tells us stories about magic, rituals and nature. The latter tells us about cultural exchange and its legacies.

*Hot Iron Marginalia* is the continuity of the project that Adrià Julià carried out in the Espai Tretze of the Joan Miró Foundation in Barcelona, in May this year, within the series *A Foot Out* curated by Jordi Antas. Based on photograph albums of Catalan Romanesque churches made by his grandfather, Julià approaches the concepts of heritage and cultural legacy from a point of view of economic relationships through several films and installations that also refer to the "importation" of American football to Catalonia in the 1990s.

Both exhibitions are accompanied by activities that will help to explore their universes. With these, we close this year's series of exhibitions, leaving an autumn flow of iconography, rituals, symbology and intersecting interpretations of stories.

**Ane Rodríguez Armendariz**  
Tabakalera's Cultural Director

***Erakusketa Exposición Exhibition***

***2017/10/27–2018/02/04***

***HOT IRON  
MARGINALIA  
ADRIÀ JULIÀ***

***www.tabakalera.eu***

**TABAKALERA**



## Sei / ʒzɛrɛpɛr

*Arte-jakintsua detektibe baten modukoa da: krimen baten egilea (edo pintora baten atzean dagoen artista) deskubritzen du, pertsona gehienek hauteman ezin duten ebidentzian oinarrituta.*

Carlo Ginzburg, *Clues, Myths and the Historical Method*

Adrià Juliàren *Hot Iron Marginalia* osatzen duten kontakizun gurutzatuek Carlo Ginzburgen argudioa dakarte gogora: hark zioenez, atzean gelditzen diren zantzeu eta ebidentzia-aztarnei behatuta uler daiteke nola egituratzen eta antolatzen den ezagutza. Alde horretatik, badirudi erakusketak metodologia bat ezartzen duela historia atzekoz aurrera irakurtzeko, begiradaren mugan dauden xehetasun batzuk detektatuz eta identifikatuz: gainazal eta partikulen desitsastea, idazkunen eta grafitien berreskuratzea, 69 zenbakiaren errepikapena, kirol-entrenamenduak edota eskaileretako igoera eta jaitsiera. Detalle horiek guztiak aztarna jakin batzuk ematen dituzte truke artistikoen eta lekualdatze kulturalen atzean dauden inplikazio politikoak irakurtzeko.

Joan Miró Fundazioan aurkeztu zuen erakusketaren iterazio berri hau eliza erromanikoen argazki-bilduma batean, artelanen zirkulazio eta trafikoan eta gatazka eta paisaia ikuskizun bihurtzeko joeran oinarritzen da, eta kontakizun historikoak eta mediatikoak euskarri batetik bestera aldatzean, hizkuntza batetik bestera itzultzean edota herri batetik bestera lekualdatzean sortzen diren kointzidentziak eta aldeak aztertze bide ematen duten bazterreko oharrek berreskuratzen ditu<sup>1</sup>. Hasieran bi kanaleko proiektzio baten zati gisa aurkeztu zena (*El fantasma de Rocky subiendo las escaleras [Rockyren mamua eskailerak igotzen]*, MNAC (*Museu Nacional d'Arte de Catalunya*), 2017), hemen, *Diccionario del deterioro (Hondatzearen hiztegia)* (2017) gisa agertzen da: hautatutako eta aurkitutako ehunka irudi elkartu eta aurrez aurre jarri ondoren eraikitako argazki-mural baten gisa, hain zuzen ere. Argazki horiek guztiak gertakari espezifiko batzuk erakusten dituzte: Bostoneko Museum of Fine Arts museoak New Yorkeko Savoy Hoteleko 69. logelan Santa Maria Mur-eko absidea eskuratu zueneko (1921);

<sup>1</sup> Adrià Julià, *Hot Iron*, Joan Miró Fundazioa, Bartzelona, 2017. Proiektua Ramon Julià Alemany-en (1908-1994) argazki-artxiboan oinarrituta zegoen. Alemanyek 556 eliza erromaniko katalogatu zituen, gehienak Kataluniakoak, 1950eko eta 1990eko hamarkaden artean. Joan Miró Fundazioko erakusketaren jatorrizko izenburua “to strike while the iron is hot” (burdina bero dagoen bitartean kolpea ematea) esapidetik dator, eta egoera aldekoa denean aukera baliatzea esan nahi du. Ikertzen ari zela, Juliàk “the iron is now hot” (burdina orain dago bero) esaldia topatu zuen 1917ko gutun batean; gutun horretan, American Art Associationeko Gustavus T. Kirbyk adierazten du obra erromanikoak erosi eta Estatu Batuetara inportatu nahi dituela. Ikusi <https://www.fmirobcn.org/en/exhibitions/5714/hot-iron>. Izenburuari Marginalia terminoa gehituta, artistak kontakizun tangentialak –eta askotan urratzaileak, hala nola grafitiak eta Erdi Aroko eskuizkribuak– txertatu nahi izan ditu erakusketaren kontzeptualizazio berrian.

## Sei / ʒɛrɛpɛr

*El conoedor de arte se parece al detective que descubre al perpetrador de un crimen (o al artista detrás de una pintura) con base en la evidencia que es imperceptible para la mayoría de las personas.*

Carlo Ginzburg, *Clues, Myths and the Historical Method*

Los relatos cruzados que conforman *Hot Iron Marginalia* de Adrià Julià remiten al argumento de Carlo Ginzburg quien afirmaba que es a partir de la observación de signos rezagados y vestigios de evidencia que se puede entender cómo se articula y organiza el conocimiento. En este sentido, la exposición parece establecer una metodología para leer la historia a contrapelo a partir de la detección e identificación de una serie de detalles al filo de la mirada: el desprendimiento de superficies y partículas, la recuperación de inscripciones y graffitis, la recurrencia del número 69, los entrenamientos deportivos o el ascenso y descenso de escaleras, proveen ciertas pistas para leer las implicaciones políticas que se vislumbran detrás de intercambios artísticos y desplazamientos culturales.

Esta nueva iteración de la muestra que Julià realizó en la Fundación Joan Miró, parte de una colección de fotografías de iglesias románicas, de la circulación y el tráfico de obras, de la espectacularización del conflicto y del paisaje, para recuperar aquellas notas marginales que llevan a analizar las coincidencias y desfases entre relatos históricos y narrativas mediáticas al migrar de un soporte a otro, traducirse de un idioma a otro, o trasladarse de una a otra localidad<sup>1</sup>. Lo que originalmente se presentó como parte de una proyección de dos canales (*El fantasma de Rocky subiendo las escaleras, MNAC (Museu Nacional d'Arte de Catalunya)*, (MNAC), 2017), aquí aparece como *Diccionario del deterioro* (2017), un foto-mural construido a partir de la asociación y contraposición de cientos de imágenes escogidas y encontradas, que se refieren a sucesos específicos como la adquisición del ábside de Santa María Mur por el Museum of Fine Arts de Boston en la habitación 69 del Hotel Savoy de Nueva York (1921); la compra del claustro de Sant-Genis-des-Fontaines para la colección del

<sup>1</sup> Adrià Julià, *Hot Iron*, Fundación Joan Miró, Barcelona, 2017. El proyecto se basaba en el archivo fotográfico de Ramon Julià Alemany (1908-1994), quien catalogó 556 iglesias románicas, la mayoría de Catalunya, entre las décadas de 1950 y 1990. El título original de la exposición en la Fundación Joan Miró viene de la expresión “to strike while the iron is hot” (dar el golpe mientras el hierro está caliente) que significa aprovechar una oportunidad mientras las condiciones son favorables. Mientras realizaba su investigación, Julià dio con la frase “the iron is now hot” (“el hierro ya está caliente”) en una carta de 1917 en la que Gustavus T. Kirby, de la American Art Association, habla de su interés por adquirir obras románicas e importarlas a los Estados Unidos. Véase <https://www.fmirobcn.org/en/exhibitions/5714/hot-iron>. Al agregar al título el término Marginalia, el artista ha buscado incorporar los relatos tangenciales –y muchas veces transgresores como en el caso del graffiti o los manuscritos medievales– a la reconceptualización de la muestra.

Sant-Genis-des-Fontaineseko klaustroa Philadelphia Museum of Art museoko bildumarako erosi zene-koa; Marcel Duchampen *Etant donnés*: 1. *La chute d'eau* 2. *Le gaz d'éclairage* (1946-1966) piezari La Bisbal d'Empordà atea gehitu eta emakume baten gorpu bizigabe eta biluzia ezkutatzen duen 69 adreiluko pareta estali zenekoa. Bilduma horrek, halaber, artista frantziarrak pintatu zuen *Nu descendant un escalier n° 2* (1912) jasotzen du; Louise eta Walter Arensbergek eman zioten lana dohaintzan museo-ari. Irudi horiek eta beste batzuek kontakizunen sare bat osatzen dute; kontakizunok erreferentziak hiztegi edo glosario guztietan nagusi den antolamendu ez beste bat proposatzen dute, eta, horrela, ikus dezakegu “museoaren testuinguruan –Robert D. Aguirreraren arabera– aintzat hartu behar ditugula nazio baten kultur ondarea beste nazio baten tresna edo garaikur inperial bihurtzen denean maiz gertatzen diren indarkeria, zatikatzea eta narriadura ere. Objektuak merkataritza-tresna bihurtzeko moduak ez dira ez sinpleak, ez ideologikoki tolesgabeak; aitzitik, botere ekonomiko, politiko, zientifiko eta militarren muturreko asimetriek moldatuta daude, eta elkar indartzen duten desira- eta pilatze-ziklo jakin batzuetan oinarrituta izan dira eraikiak”<sup>2</sup>.

Aguirrek aipatzen duen asimetria ekonomiko, politiko eta kultural hori museo tradizionalen eta haien narratiba pedagogikoen aurkako erronka bat da. Hemen, asimetria hori arkitektura erromanikoaren eta Duchampen obraren arteko lotura urrunaren bitartez ageri da islatuta, baina baita *Guides Bleus* tradizionalekin, Bartzelonan aurkeztu zen Buffalo Billen ikuskizunaren kritikarekin (1889), Garrett Brownen asmatutako Steadicam kamerarekin eta horrek kirolean nahiz entretenimenduan izan duen erabilerekin –besteak beste, Rocky filmeko eszena gogoangarri hura filmatzeko, non Sylvester Stallone aktoreak korrika igotzen dituen Philadelphiako museoko eskailerak– eta askotariko beste hainbat elementurekin duen loturaren bitartez ere<sup>3</sup>.

Erakusketaren izena (*Hot Iron Marginalia*, 2017) darman beste obra batean, 16 milimetroko eta bideoan grabatutako film zatiak erakusten dira. Horiek erabiliz, Juliak koreografia antzeko bat eszenaritzen du: bi jokalarik futbol amerikarreko oinarritzko entrenamendu-mugimenduak egiten dituzte Museu Nacional d'Art de Catalunya (MNAC) museoko fresko babestu batzuk aurrean dituztela. Gero, irudi horiek

Philadelphia Museum of Art; la incorporación a la pieza de Marcel Duchamp *Etant donnés*: 1. *La chute d'eau* 2. *Le gaz d'éclairage* (1946-1966) de la puerta de La Bisbal d'Empordà cubriendo la pared de 69 ladrillos que esconde el cuerpo inerte y desnudo de una mujer. Dicha colección alberga también el segundo *Nu descendant l'escalier* (1912) que pintara el artista francés, y que fue donado al museo por Louise y Walter Arensberg. Éstas y otras imágenes constituyen un entramado de relatos que, al proponer una organización alterna a la que impera en todo diccionario o glosario referencial, nos deja ver cómo “en el contexto del museo –según Robert D. Aguirre–, hemos de considerar también la violencia, el desmembramiento, y el deterioro que frecuentemente acompaña la metamorfosis del patrimonio cultural de una nación en el artefacto o trofeo imperial de otra... Las maneras en que los objetos se transforman en artefactos mercantiles no son sencillas ni ideológicamente inocentes, sino que están moldeadas por las asimetrías radicales del poder económico, político, científico y militar, y han sido construidas a partir de ciertos ciclos de deseo y acumulación que se fortalecen a sí mismos”<sup>2</sup>.

Esta asimetría económica, política y cultural de la que habla Aguirre y que constituye un desafío a los dispositivos museísticos tradicionales y a sus narrativas pedagógicas, aparece aquí representada no sólo por la asociación distante de la arquitectura románica a la obra de Duchamp sino, también, por su vinculación a elementos tan dispares como los tradicionales *Guides Bleus*, la reseña del espectáculo de Buffalo Bill presentado en Barcelona (1889), o la invención del Steadicam por Garrett Brown y sus usos en el ámbito del deporte y el entretenimiento –entre ellos, para la filmación de la escena icónica en la que Sylvester Stallone, interpretando a Rocky, sube corriendo la escalinata del museo de Philadelphia<sup>3</sup>.

En otra obra que lleva por título el nombre de la muestra, *Hot Iron Marginalia* (2017) y que presenta distintos segmentos de película en 16mm y en video, Julià pone en escena una suerte de coreografía en la que dos jugadores ejecutan los movimientos básicos de entrenamiento de fútbol americano frente a unos frescos resguardados en el Museu Nacional d'Art de Catalunya (MNAC), imágenes que luego yuxtapone a aquellas bruscamente

<sup>2</sup> Robert D. Aguirre, *Informal Empire, Mexico and Central America in Victorian Culture*, University of Minnesota Press, Minneapolis / London, 2005, Xxiii or.

<sup>3</sup> 1974an Steadicam kamera asmatu ondoren, Brownen bere emaztea filmatu zuen Philadelphia Museum of Arteko eskailerak igotzen, urtebete geroago *Rocky* filma grabatu zen toki berean. Juliak eszena bera errepikatu zuen, gerora *Rocky's Ghost Ascending the Staircase* (MNAC) piezari txertatzeko.

<sup>4</sup> Helmetcam kamera izan zen jokalarien kaskoan kanta barruko mugimenduak ikusi ahal izateko jarri zen lehen kamera. 1991n erabili zen lehen aldiz, futbol amerikarreko ligan.

<sup>2</sup> Robert D. Aguirre, *Informal Empire, Mexico and Central America in Victorian Culture*, University of Minnesota Press, Minneapolis / London, 2005, Xxiii or.

<sup>3</sup> Tras inventar el Steadicam en 1974, Brown filmó a su mujer subiendo la escalinata del Philadelphia Museum of Art, misma escalinata en la que un año después se filmaría la película *Rocky*. Julià repetiría la misma escena para posteriormente integrarla a su pieza *Rocky's Ghost Ascending the Staircase* (MNAC).

<sup>4</sup> La Helmetcam fue la primera cámara insertada en el casco de los jugadores para capturar sus movimientos dentro de la cancha. Se utilizó por primera vez en la liga de fútbol americano en 1991.

kantxa baten barruan modu bortitzean grabatutako irudien gainean jartzen ditu<sup>4</sup>. Artista, kameraren enkoaraketaren barruan, egonkortasunarekin eta formen nahiz gorputzen mugimenduetarekin jolas-ten du; ikonografia erlijiosoaren soiltasunarekin eta kirol-uniformeen hutsaltasunarekin; horma-irudien degradatzearekin eta irudi digitalaren distorsio eta indarkeriarekin. Era horretan, agerian jartzen ditu kultur testuinguruak desitxuratzetik jaiotzen diren tentsioak eta tirabirak, baita horrek giza paisaia dituen ondorioak ere<sup>5</sup>.

Paisaiaren instrumentalizazioa jada agerikoa zen erakusketan, Espainiako *Guide Bleu* tradizionalari egindako erreferentzia ugarien bidez; hala, Roland Barthesek<sup>6</sup> esan zuen moduan, pintoreskoa mito bihurtzean, naturari giza dimentsio oro kentzen zaio, eta lurraren ustiaketari eta gatazka armatuak ikuskizun bilakatzeko joerari estuki loturiko tresna ideologiko bihurtzen da natura. Horrelaxe frogatu zuen *Buffalo Bill's Wild West* ikuskizunaren arrakastak: hogeita hamar urtez baino gehiagoz Ipar Amerikako Mugako kronikak eszenaratu zituen, hala Estatu Batuetan nola European, behizain, azalgorri, zaldi eta bisonteekin. Une eta gertaera jakin batzuk irudikatzen zituen (besteak beste, Pony Express-aren inaugurazioa eta Deadwood diligentziari egindako lapurreta), eta protagonista nagusiak euren buruaren isla ahul gisa erabiltzen zituen (Calamity Jane, Jerónimo eta Zezen Eseri indioak...); hala, Buffalo Bill ikuskizuneko Mendebalde Zaharrak Ipar Amerikako paisaiaren ezaugarri semiotikoak berresten zituen<sup>7</sup>.

Erakusketa osoan pieza batetik bestera transferitzen direla ematen duten isla asimétrikoak egonkortu egiten dira isilean keinua okertzean edota kapela baten hegala doi-doi ukitzean –beste era batera esanda, Joseph Rothen *Hotel Savoy* eleberriaren 69 orrialdeetako zorizko bat ez etortzean, hala ingelesezko

capturadas dentro de una cancha<sup>4</sup>. El artista juega con la estabilidad y movimiento de las formas y de los cuerpos dentro del encuadre de la cámara; con la sobriedad de la iconografía religiosa y la trivialidad de los uniformes deportivos; con la degradación física de los murales y la distorsión y la violencia de la imagen digital, poniendo de relieve las tensiones y fricciones que resultan de la tergiversación de contextos culturales, así como sus efectos sobre el paisaje social<sup>5</sup>.

La instrumentalización del paisaje ya se hacía presente en la exposición mediante las múltiples referencias al tradicional *Guide Bleu* de España que, como escribiera Roland Barthes<sup>6</sup>, al mitificar lo pintoresco, despoja la naturaleza de toda dimensión humana, volviéndose aquí una herramienta ideológica íntimamente ligada a la explotación de la tierra y a la espectacularización de los conflictos armados. Así lo demostró el éxito de *Buffalo Bill's Wild West* que, por más de treinta años, escenificó las crónicas de la Frontera norteamericana, tanto en Estados Unidos y como en Europa, incluyendo no sólo emblemáticos vaqueros y pieles rojas sino, también, caballos y bisontes. Al representar momentos y sucesos específicos (como la inauguración del Pony Express o el asalto a la diligencia de Deadwood), y utilizar a sus principales protagonistas como pálidos reflejos de sí mismos (Calamity Jane, el indio Jerónimo o Toro Sentado...), el Viejo Oeste de Buffalo Bill reiteraba los rasgos semióticos del paisaje norteamericano<sup>7</sup>.

Los reflejos asimétricos que parecen transferirse de una pieza a otra a lo largo de la exposición, quedan también asentados en el torcer el gesto en silencio o en el rozar el ala de un sombrero –en otras palabras, en el desencuentro azaroso de las páginas 69 de la novela de Joseph Roth, *Hotel Savoy*, tanto en su versión inglesa como en su la traducción al español<sup>8</sup>.

<sup>5</sup> Gogoan izan behar da futbol amerikarra Espainiara ekarri zela herrialdea 1992ko Bartzelonako Olinpiar Jokoen egoitza izan zedin, ibilbide laburra (1991-2003) izan zuen Barcelona Dragons taldearen bitartez. Olinpiar Jokoen eraginez, hiri osoa, eta bereziki Montjuïc ingurua (bertan dago MNAC museoa), sakonki aldatu ziren. Barcelona Dragons taldeak olinpiar estadioan jokatu ohi zuen.

<sup>6</sup> Roland Barthes, *Mythologies* (1957)

<sup>7</sup> *Imperial Landscape* saiakeran, W.J.T. Mitchellek idazten du paisaiaren “ezaugarri semiotikoak” sortzen dituzten narratiba historikoek inperialismoaren diskurtsoa berresteko balio dutela; izan ere, inperialismoak naturaren hedapen geldiezin gisa eta “kulturraren” eta “zibilizazioaren” garapen progresibo eta ekidinezin gisa ikusten du bere burua. Ikusi W. J. T. Mitchell, “Imperial Landscape”, *Landscape and Power*, The University of Chicago Press, Chicago/London, 1994.

<sup>8</sup> Eleberria 1924an argitaratu zen, eta Lodz hiriko hotel originala du ardatz; dantzariak eta gerrako beterano babesgabeak bertan elkartzen ziren urrutiko parajeekin amets egiteko. Hotelaren izena behin eta berriz agertzen da urteko aurrera egin ahala, toki desberdinetan, gaur egun existitzen ez den New Yorkeko Savoy hotelarekin gertatzen den bezalaxe; hotel horretako 69. gelan erosi zuen Bostoneko Museum of Fine Artsek Santa María Mur-eko absidea.

<sup>5</sup> Es importante recordar que el football americano fue introducido a España para que el país pudiera contender en los Juegos Olímpicos de Barcelona de 1992, con el equipo de corta vida Barcelona Dragons (1991-2003). La ciudad como tal, y en particular la zona de Montjuïc, en dónde se encuentra el MNAC, se vio radicalmente transformada con motivo de las Olimpiadas. El Estadio Olímpico fue también el lugar donde solían jugar los Barcelona Dragons.

<sup>6</sup> Roland Barthes, *Mythologies* (1957)

<sup>7</sup> En su ensayo *Imperial Landscape*, W. J. T. Mitchell escribe que las narrativas históricas que generan los “rasgos semióticos” del paisaje sirven para refrendar el discurso del imperialismo que se concibe a sí mismo como la expansión inevitable de la naturaleza y el desarrollo progresivo e ineludible de la “cultura” y la “civilización”. Véase W. J. T. Mitchell, “Imperial Landscape”, *Landscape and Power*, The University of Chicago Press, Chicago/Londres, 1994.

<sup>8</sup> La novela publicada en 1924 trata del hotel original en la ciudad de Lodz, en el que se congregaban bailarinas y veteranos de guerra desvalidos a soñar con parajes distantes. El nombre del hotel reaparecería a lo largo de los años en localizaciones distintas, como el hoy desaparecido Hotel Savoy de Nueva York en cuya habitación 69 tuviera lugar la adquisición del abside de Santa María Mur por el Museum of Fine Arts de Boston.

bertsioan nola gaztelaniazko itzulpenean<sup>8</sup>. Hala ere, hau ere badakigu: “artistak, gaizkileak bezalaxe, ez du bere atzean nahita aztarnarik uzten obra dezifratzen laguntzeko. [Haietakoren batek] aztarnak nahita uzten dituenean, ikertzaile bizkorrak ez die kasurik egin behar edo, are hobeto, errakuntzara bultzatzeko amarru gisa ulertu behar ditu.<sup>9</sup> Une horretantxe baliatu behar ditu ikusleak erakusketan bustitzen duten ahots disonanteak eta oihartzun marjinalak, horrek ahalbidetuko baitio korrontearen aurkako irakurketa bat egitea eta zati guztiak berriz ere interpretatzea.

**Magali Arriola**

Arte kritikaria eta komisario independentea

Sabemos, sin embargo, que “el artista como el criminal, no deja intencionalmente pistas detrás de él para ayudar a que se descifre la obra. Cuando [alguno de ellos] *planta* las pistas intencionalmente, el investigador astuto debe ignorarlas, o aún mejor reconocerlas como artimañas para inducir al error”. Es entonces cuando el espectador debe recurrir a las voces disonantes y a los ecos marginales que permean la exposición, para llevar a cabo una lectura a contrapelo que le permita volver a interpretar cada una de sus partes.

**Magali Arriola**

Crítica de arte y comisaria independiente

<sup>9</sup> WTJ Mitchell, “Method, madness and montage: assemblages of images and production of knowledge”, *Image Operations: Visual Media and Political Conflict*, Jens Eder, Charlotte Klonk, ed., Manchester University Press, 2016, 56. or.

<sup>9</sup> WTJ Mitchell, “Method, madness and montage: assemblages of images and production of knowledge”, *Image Operations: Visual Media and Political Conflict*, Jens Eder, Charlotte Klonk, ed., Manchester University Press, 2016, 56. or.

## Six / əʊɪŋ

*The art connoisseur resembles the detective who discovers the perpetrator of a crime (or the artist behind the painting) on the basis of evidence that is imperceptible to most people.*

**Carlo Ginzburg, *Clues, Myths and the Historical Method***

The intersecting stories that make up *Hot Iron Marginalia* by Adrià Julià refer to the reasoning by Carlo Ginzburg, who stated that it is through the observation of scattered signs and vestiges of evidence that one can understand how knowledge is coordinated and organised. In this sense, the exhibition seems to establish a methodology to read history against the grain through the detection and identification of a series of details that can be seen at a glance: the reappearance of surfaces and particles, the recovery of inscriptions and graffiti, the recurrence of number 69, sports training or going up and down stairs, provide certain clues to read the political implications that can be discerned behind artistic exchanges and cultural displacements.

This new iteration of the exhibition made by Julià at the Joan Miró Foundation has its origin in a collection of photographs of Romanesque churches, the circulation and traffic of works, the spectacularisation of conflict and landscape, to recover the marginal notes that lead to analysing the coincidences and mismatches between historical accounts and media narratives by migrating from one medium to another, translating from one language to another, or moving from one location to another<sup>1</sup>. What originally appeared as part of a two-channel projection (*Rocky's Ghost Going Up the Stairs MNAC (Museu Nacional d'Arte de Catalunya)*, , 2017), appears here as *Dictionary of Decay* (2017), a photo-mural built from the association and contrast of hundreds of images chosen and found, which refer to specific events such as the acquisition of the apse of Santa Maria Mur by the Museum of Fine Arts of Boston in room 69 of the Savoy Hotel in New York (1921); the purchase of the cloister of Sant-Genis-des-Fontaines for the collection of the Philadelphia Museum of Art; the incorporation into the piece by Marcel Duchamp *Etant donné: 1. La chute d'eau 2. Le gaz d'éclairage* (1946-1966) of the door of La Bisbal d'Empordà covering a wall made of 69 bricks that hides the inert and naked body of a woman. This collection also houses the second *Nu descendant l'escalier* (1912) painted by the French artist, which was donated to the museum by Louise and Walter Arensberg. These and other images make up a framework of stories that, in proposing an organisation that moves away from what prevails in every dictionary or referential glossary, allows us to see how “in the museum context”, according to Robert D. Aguirre, “we must also consider the violence, dismemberment, and defacement that frequently accompanied the metamorphosis of one nation’s cultural patrimony into another’s artifact or imperial trophy (...) The ways in which objects enter the “commodity phase” of their careers are neither simple nor ideologically innocent, but shaped by radical asymmetries of economic, political, scientific, and military power, and built on self re-enforcing cycles of desire and accumulation”<sup>2</sup>.

<sup>1</sup> *Adrià Julià, Hot Iron*, Joan Miró Foundation, Barcelona, 2017. The project was based on the photographic archive of Ramon Julià Alemany (1908-1994), who catalogued 556 Romanesque churches, most in Catalonia, between the 1950s and 1990s. The original title of the exhibition at the Joan Miró Foundation comes from the expression “to strike while the iron is hot” which means to take advantage of an opportunity while conditions are favourable. While conducting his research, Julià came up with the phrase “the iron is now hot” in a letter written in 1917 in which Gustavus T. Kirby of the American Art Association speaks of his interest in acquiring Romanesque works and importing them into the United States. See <https://www.fmirobcn.org/en/exhibitions/5714/hot-iron>. By adding to the title the term Marginalia, the artist has sought to incorporate tangential accounts, often transgressive as in the case of graffiti or medieval manuscripts, to the reconceptualisation of the exhibition.

<sup>2</sup> Robert D. Aguirre, *Informal Empire, Mexico and Central America in Victorian Culture*, University of Minnesota Press, Minneapolis / London, 2005, p. Xxiii.

This economic, political and cultural asymmetry that Aguirre talks about, which represents a challenge to traditional museological devices and their pedagogical narratives, is represented here not only by the distant association of Romanesque architecture with the work of Duchamp, but also by its relationship with elements as diverse as the traditional *Guides Bleus*, the review of the Buffalo Bill show presented in Barcelona (1889), or the invention of the Steadicam by Garrett Brown and its uses in the field of sports and entertainment, including the filming of the iconic scene in which Sylvester Stallone, playing *Rocky*, runs up the steps of the Philadelphia Museum<sup>3</sup>.

In another work entitled with the name of the exhibition, *Hot Iron Marginalia* (2017) and featuring different 16mm film and video segments, Julià staged a kind of choreography in which two players perform the basic movements of American football training in front of frescos sheltered in the National Museum of Art of Catalonia (MNAC), these images being juxtaposed to those captured abruptly in a field<sup>4</sup>. The artist plays with the stability and movement of shapes and bodies within the camera framing; with the sobriety of religious iconography and the triviality of sports uniforms; with the physical degradation of murals and the distortion and violence of a digital image, highlighting the tensions and frictions that result from the distortion of cultural contexts, in addition to their effects on the social landscape<sup>5</sup>.

